



I. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA DEIALDIA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ETA TREBIÑUKO ENKLABEAN KULTURA SORKUNTZA ETA ZABALKUNDEKO PROGRAMAK GARATZEKO, 2023AN.

1. artikulua. Xedea eta helburua

Deialdi honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kultura arloko profesional autonomoek eta enpresek sustatutako kultura sorkuntza eta zabalkundeko programak garatzen laguntzea (2023ko deialdia).

Deialdi honen helburua hau da: alde batetik, arte eta kultura sorkuntza bultzatzea, Arabako Lurralde Historikoan dagoen talentua eta sormen-potentziala erakutsiz, eta, bestetik, kulturarako sarbidea bermatzea eta sustatzea, inor Arabako kultura bizitzatik kanpo geratzen ez dela ziurtatuz.

Deialdia bat dator Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zenbakia) xedatutakoarekin. Dekretu hori Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen (2021eko martxoaren 10eko ALHAO, 28. zenbakia).

2. artikulua. Laguntzak emateko prozedura

Laguntzak norgehiagoka bidez emango dira. Dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskabideak ezarritako balioespen irizpideen arabera alderatuko dira, eskabideen arteko hurrenkera ezartzeko. Balioespen handiena lortu dutenei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

3. artikulua. Dirulaguntzen aurrekontu egozpena, zenbatekoa eta muga

1. Deialdiaren zenbatekoa 232.000,00 euro da.

2. Erabaki honen bidez araututako laguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuko partida hauen kargura ordainduko dira:

- 70105.G/334700/47900705 “Kultura sortu eta zabaltzeko proiektuetarako dirulaguntzak”
- 70105.G/334700/48100721 “Kultura sortu eta zabaltzeko proiektuetarako dirulaguntzak: Elkarteak”.

3. Diruz lagun daitekeen ehuneko eta gehieneko zenbatekoa.

Deialdi honetan, diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa eragiketa hau egitetik lortzen den emaitza izango da: proiektuaren aurrekontu osoa ken deialdi honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak.

Emandako dirulaguntzak ezin izango du gainditu eskatutako zenbatekoa, ez eta diruz lagundu daitekeen programaren aurrekontu osoaren ehuneko 60 ere, eta erakunde eskatzaileak ziurtatu beharko du gainerako ehuneko 40a eskuratzea. Eskatzaile bakoitzak programa bakarra aurkeztu ahal izango du, eta diruz lagundu daitekeen aurrekontua ez da izango 32.000 euro baino gehiago.



Eskatzaileko programa bat baino gehiago aurkezteak automatikoki ekarriko luke egoera horrekin identifikatutako eskaera guztiak atzera botatzea.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko balioetsi eta gero 800 eurotara heltzen ez diren eskaerek.

4. artikulua. Erakunde onuradunak

1. Erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabean izan beharko dute egoitza soziala eta fiskala.

2. Deialdi honen onuradun izan daitezkeen erakundeak bi mota hauetakoak izan daitezke:

1. modalitatea. Irabazteko xedea duten erakunde pribatuak eta langile autonomoen araubide bereziari atxikitako profesionalak. Diru zuzkidura: 92.000 euro.

2. modalitatea. Irabazteko xederik gabeko elkarteak. Diru zuzkidura: 140.000 euro.

Modalitate batean sortzen diren soberakinak bestearen zenbatekoari gehitu ahal izango zaizkio, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

3. Federazioetan, konfederazioetan edo antzekoetan elkartutako kultura elkarte eta erakundeek ez dute nor bere aldetik edo beste erakunde bateko kide gisa aurkezterik deialdi honetan. Egoera horrek automatikoki ekarriko luke egoera horrekin identifikatutako eskaera guztiak ez onartzea.

4. Kanpoan geratzen diren erakundeak:

- a. Elkarteak, taldeak eta antzekoak, beren helburuen artean nagusiki kultura izaerakoak ez badituzte, eta egiten dituzten jarduerak halakotzat jotzen ez badira.
- b. Auzo elkarteak, gazte elkarteak, aisialdikoak eta denbora librekoak, bai eta hezkuntzarekin eta/edo prestakuntzarekin zerikusia duten guztiak ere, hala nola gurasoen elkarteak eta ikasleen eta ikasle ohien elkarteak.
- c. Fundazioak.
- d. Dirulaguntzaren xede bererako administrazio publikoekin kontratu bat esleituta daukaten erakundeak.
- e. Laguntza lerro horren aurreko deialdietan emandako dirulaguntzetatik sortutako betebeharrak guztiak bete ez dituztenak.
- f. Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailaren 2023ko programazioan jasotako edo sail horren babesa duten ekimenak egiten dituztenak.
- g. Arabako Foru Aldundiaren edozein sailek bultzatutako beste programa batzuetan jasota dauden edo beste edozein sailen eskumenekoak diren xedekak dituztenak.
- h. Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontuan izendun dirulaguntzak dauzkatenak, horren helburua dirulaguntzaren xedearekin bat baldin badator, bai eta horiekin loturikoak ere.
- i. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan adierazitako arau hausteren bat dela-eta zehatu direnak, ez eta sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik

administrazio zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokien zehapenean ezarritako aldian, hala xedatzen baitute Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea) eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako Legea).

5. Adierazi diren erakunde onuradunek egunean eduki beharko dituzte Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, bai dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik, bai dirulaguntza jaso aurretik, bai eta aurrez aurre aurkeztea erabakitzen duten autonomoen nortasun-datuak ere. Kultura Ekintza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du erakunde eskatzaileak betebeharrak egunean izateko baldintzak betetzen dituela. Erakunde horrek egiaztapen horien aurka egiten badu, egitate horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako hamabigarrenaren bidez aldatua).
6. Pertsona juridikoak badira, legez eratuta egon beharko dute.

5. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen programa eta gastuak

1. Dirulaguntza eman ahal izango da Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean garatu eta gauzatzeko diren kultura sorkuntza eta zabalkundeko programa irekietarako.
2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:
 - a. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri, behar-beharrezkoak izan, merkatuko balioa gaitu ez eta 2023ko ekitaldian egiten direnak.
 - b. Diruz lagungarriak izango dira:
 - Gastu orokorrak edo zeharkakoak: Zeharkako gastutzat joko da diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuaren ehuneko 10era arte, haiek justifikatu beharrik gabe, eta kostu horiek jarduera programa benetan egiten den aldiari badagozkio. Hori guztia Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 83.3 artikuluan araututakoaren arabera.
 - Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa), baldin eta erakundeak ezin badu berreskuratu.
3. Diruz lagundu ezin diren gastuak:
 - a. Dirulaguntza jasotzeko edota jaso izana justifikatzeko, dirulaguntza esleitzeko ebazpenak aurkakoa adierazi ezean, ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko honako hauek:
 - Ordezkaritza, protokolo eta operari gastuak eta antzekoak.
 - Material ez-suntsikorra eta material informatikoa edo ekipo teknikoak erostearen ondoriozkoak.
 - Berbenek eta ospakizunekin, erromeriek eta herriko jaiekin lotutako gainerako ekitaldiek eragindako gastuak, Arabako tradizioko herri partaidetzako kultura ekintzak izan ezik.

- Aisialdiko edota entretenimenduko jarduerak, jolas eta jai jarduerak eta kirol jarduerak eragindako gastuak, bai eta berariaz kulturalak ez diren jarduerak sortutakoak ere.

6. artikulua. Eskabideak aurkeztea

1. Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek, elkargo bateko kide izan beharra eskatzen duen jarduera profesional batean aritzen direnek eta jarduera horretan aritzean egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkariak nahitaez aurkeztu behar dute eskabidea izapide espezifiko baten bidez, zeina egoitza elektronikoa baitago eskuragarri (<https://egoitza.araba.eus/es/-/subvenciones-desarrollo-programas-de-creacion-y-difusion-cultural>). Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez.

2. Herri-administrazioekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera behartuta ez dauden pertsonak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dute eskabidea, helbide honetan:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Gasteiz, Guardia eta Laudioko Ogasunaren bulegoen erregistroan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Puntu honetan jasotako moduan aurkeztutako eskabideak deialdi honen II. Eranskineko eredura egokitu beharko dira.

3. Eskabidea hainbat erakunde batera aurkezten badute, taldeko erakunde bakoitzak bere gain hartutako gauzatze konpromisoak zehaztu beharko dira, bai eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta erakunde guztiak hartuko dira onuraduntzat. Era berean, pertsona edo erakunde bat izendatu beharko da taldearen ordezkari edo ahaldun bakar, onuraduna den aldetik taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoekin, eta hura arduratuko da eskaera izapidetzearen ondoriozko gainerako jarduketetz.

7. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko hamabost (15) egun baliouduneko epea izango da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. artikulua. Eskatutako agiriak

Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Kultura programaren proiektua, balioespen irizpideak osatzen dituzten alderdi guztiak jasotzen dituen (deialdi honen bederatzigarren artikulua).
2. Diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua.
Ezinbestekoa izango da eskabideari erantsita proiektua eta aurrekontua aurkeztea oinarri hauetan ezarritako epean eta moduan. Eskabidea soilik aurkezteak, proiektuarekin batera joan gabe, izapidea ez onartzea ekarriko du berekin.
3. Aurkeztu beharko duten administrazio dokumentazioa:

- Hala badagokio, BEZa ordaintzetik salbuetsita egotearen ziurtagiria, dagokion zerga administrazioak emana.
- Hala badagokio, inplikaturako eragileen ziurtagiria, programa garatzen lagundu dela egiaztatzen duena (ezarritako lankidetzaren sareak).

4. Eskabidean edo horrekin batera aurkezten diren administrazio agirietan akatsik egongo balitz edo osorik bete gabe egongo balira, hamar egun balioduneko epea emango zaie erakunde interesdunei antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, ebazpena emango da bat etorritako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin. Kultura Ekintza Zerbitzuak egokitzen jotzen duen behar beste agiri eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei aurkeztutako eskabidea behar bezala balioetsi eta ebazteko.

9. artikulua. Balioespen irizpideak

Aurkeztutako proiektuak balioesteko, honako irizpide eta baremo hauek hartuko dira kontuan:

I. Balioespenaren 1. fasea: fase honetan balioetsiko da aurkeztutako kultura proiektua deialdi honen helburura egokitzen den. 80 puntu, gehienez.

1. Proiektuak Arabako kultura-eskaintzari egiten dion ekarpena. Gehienez, 20 puntu.

Arabako kultura eskaintzaren testuinguruan, proiektua gauzatzeak zer dakarren balioetsiko da, kalitatearen, kultura eraginaren eta gizarte eraginaren parametroetan, honako banaketa honen arabera:

- Proiektuaren kalitate kulturala. 8 puntu, gehienez.
- Kultura eragina, gauzatzen den herrian bertan eta kanpoan. 3 puntu, gehienez.
- Gizarte eragina: proiektuaren onuradunak, noizentzat den. 3 puntu, gehienez.
- Diziplina anitzeko programak. 3 puntu, gehienez.
- Finkatutako nazioarteko proposamenak barne hartzea. 3 puntu, gehienez.

2. Izaera berritzailea. Proposamenaren originaltasuna eta berritasuna eta udalerrian edo kuadrillan antzeko programarik ez egotea, baita aurreko edizioetako programarekiko berrikuntzak ere. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

Izaera berritzailea	Haztapena
Handia	5 puntu
Ertaina	3 puntu
Ez-esanguratsua	0 puntu

3. Kultura proposamenaren ibilbidea eta sendotzea denboran. Kultura proposamenak denboran zehar izan duen ibilbidea eta finkapena. Irizpide honek laguntzaren xede den jardueraren edizio kopurua balioetsiko du, taula honen arabera. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

Edizio kopurua	Haztapena
10 edizio baino gehiago	5 puntu
4-10 edizio	3 puntu
3 edizio	1 puntu

4. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa. Gehienez 15 puntu, honela banatuta:

- Proiektuaren oinarriak. Lortu nahi diren helburuen deskribapen koherente eta argia. 5 puntu, gehienez.
- Jardueren metodologia eta plangintza, gauzatze egutegia barne. 4 puntu, gehienez.
- Jarraipena eta ebaluazioa. 4 puntu, gehienez.
- Beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak esplizituki zehaztea. 1 puntu.
- Programaren komunikazioa eta zabalkundea. puntu 1.

5. Proposamenaren finantzaketa eta bideragarritasuna. Proposamenak finantzaketa propioko maila ona izatea balioetsiko da; izan ere, horrela, bideragarritasun ekonomikoa handiagoa izango da, eta ez da dirulaguntzaren hain mende egongo gauzatu ahal izateko. 7 puntu, gehienez.

Beraz, diruz lagundu daitekeen aurrekontu osotik eskatutako ehunekoa zenbat eta txikiagoa izan orduan eta handiagoa izango da atal honetako puntuazioa. Gehienez 7 puntu (balio hamartarrak hurbileneko balio osora biribilduko dira, edo erakunde eskatzailearentzako komenigarrienera), honela banatuta:

Diruz lagundu daitekeen aurrekontutik eskatutako ehunekoa	Haztapena
35etik beherakoa	7 puntu
35-45 artean	5 puntu
46-55 artean	3 puntu
55 baino gehiago	0 puntu

Finantzaketa eta bideragarritasun maila kalkulatzeko, formula hau aplikatuko da:

$$(\text{Diruz lagun daitekeen eskatutako aurrekontua} / \text{Diruz lagun daitekeen aurrekontua guztira}) \times 100$$

6. Proiektua garatuko den herrian edo herrietan ezarritako lankidetzaren zehaztea. Irizpide hau balioetsiko da inplikaturako eragileek programa gauzatzen parte hartzen dutela egiaztatzen duen gutuna

edo adierazpena aurkezten bada, bestela ez. Apartatu honetan ez dira kontuan hartuko ekonomia izaera hutseko lankidetzak. 5 puntu, gehienez.

Lankidetzak kopurua	Haztapena
Tokiko 3 lankidetzak baino gehiago	5 puntu
Tokiko 3 lankidetzak	3 puntu
Tokiko 2 lankidetzak	2 puntu
Tokiko lankidetzak 1	1 puntu

7. Programa Araban eta Trebiñuko enklabeen garatzeko lurralde eremua (atal honetan ez dira balioetsiko Arabatik kanpo egin daitezkeen jarduerak). Gehienez, 23 puntu. Puntuaren banaketa ondoko eskala honen arabera egingo da:

- Gasteizko udalerrian bakarrik egindako programak. 5 puntu
- Udal esparrua gainditzen duten programak. 7 puntu.
- Egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabeen (eta Gasteizko udalerritik kanpo) duten erakundeek bultzatutako eta Gasteizko udalerritik kanpo egiten diren programak. 12 puntu.
- Biztanle gutxi edo populazio sakabanatuko udalerrietan garatzen diren programak. 16 puntu. Atal honetan puntuazioa lortzeko, programaren ehuneko 50, gutxienez, adierazitako baldintza betetzen duten udalerrietan garatu beharko da.

Deialdi honen ondorioetarako, eta soilik horretarako, biztanle gutxi edota biztanleak sakabanatuta dituzten udalerriak izango dira 1.000 biztanletik behera dituztenak edo 1.000 eta 3.000 biztanle artekoak, baldin eta 10 biztanlegunez edo gehiagoz osatuta badaude. INEren 2022ko urtarrilaren 1eko Populazio Unitatekako Errolda Jarraituko biztanleriari buruzko datuen arabera, hauek dira:

Kuadrilla	Udalerria	Biztanle guneak	Biztanleak, guztira
AÑANA	Añana	2	156
	Armiñón	3	235
	Berantevilla	8	452
	Erriberagoitia/Ribera Alta	25	820
	Kuartango	20	421
	Valdegovía/Gaubea	30	1097
	Zambrana	4	425
	Lantarón	12	931
ARABAKO LAUTADA	Asparrena	10	1637
	Barrundia	14	914
	Elburgo/Burgelu	6	629

	Iruraiz-Gauna	11	537
	San Millán/Donemiliaga	15	718
	Zalduondo	1	195
AIARA	Ayala/Aiara	24	2.921
TREBIÑUKO ENKLABEA	Treviño/Trebiñu	47	1.428
	La Puebla de Arganzón	2	526
GORBEIALDEA	Arratzua-Ubarrundia	11	1.031
	Urkabustaiz	10	1.408
	Zigoitia	18	1.822
	Zuia	13	2.330
GUARDIA - ARABAKO ERRIOXA	Baños de Ebro/Mañueta	1	296
	Elciego	1	971
	Elvillar/Bilar	1	316
	Kripan	1	176
	Lanciego/Lantziego	3	724
	Lapuebla de Labarca	1	870
	Leza	1	217
	Moreda de Álava/Moreda Araba	1	216
	Navaridas	1	200
	Samaniego	1	311
	Villabuena de Álava/Eskuernaga	1	291
	Yécora/Iekora	1	247
ARABAKO MENDIALDEA	Arraia-Maeztu	18	945
	Bernedo	13	560
	Harana/Valle de Arana	4	226
	Lagrán	3	175
	Peñacerrada-Urizaharra	6	310

Aurreko irizpideen balioespenean gutxienez 50 puntu lortzen dituzten proiektuak balioespenean 2. fasera igaroko dira. Gainerako proiektuak baztertu egingo dira.

II. Balioespenean 2. fasea: fase honetan zeharkako irizpideak balioetsiko dira, hala nola hizkuntza ofizialak erabiltzea eta genero ikuspegia kontuan hartzea, baita gizarte eta ingurumen irizpideak ere. Gehienez 20 puntu.

1. Euskara erabiltzea programa gauzatzean. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:
 - a. Programan euskararen erabilera sustatzeko helburu eta ekintza espezifikoak sartzea. 3 puntu, gehienez.
 - b. Euskara erabiltzea programa gauzatzean. 2 puntu, gehienez.
2. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:
 - a. Programan sartzea emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta ekintza espezifikoak. 3 puntu, gehienez.

- b. Programa gauzatzeko emakumeak kontratatzea eta emakumeek profesionalki parte hartzea. 2 puntu, gehienez.
3. Programan tolerantzia, gizarteratzea eta kultura aniztasuna sustatzen dituzten helburuak eta ekintzak sartzea. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:
- a. Pertsona eta talderik kalteberenei arreta berezia ematen dieten programak, pertsona eta talde horiei jardueretan sartzeko eta parte hartzeko aukera ematen dieten ekintza espezifikoak bidez. 3 puntu, gehienez.
 - b. Tolerantzia, gizarteratzea eta kultura aniztasuna nabarmentzen dituzten mezuak zabaltzen dituzten programak. 2 puntu, gehienez.
4. Ingurumen irizpideak. 5 puntu, gehienez.
- a. Ingurumen hezkuntza sustatzearekin lotutako ekintza espezifikoak. 5 puntu, gehienez.

Dirulaguntza emateko proposamenean, bi faseak batuta gutxienez 60 puntuko balioespena lortzen duten eskabideak bakarrik sartuko dira.

Bi faseetan lortutako irizpideen puntuen baturak guztirako kopuru unitarioa emango du puntuka, eta ondoren deskribatzen den eskalara eramanda, dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako aurrekontuaren arabera esleitu beharreko dirulaguntzaren ehunekoa adieraziko du.

Puntu kopurua	Dirulaguntzaren ehunekoa (%)
0 - 59	0
60 - 65	30
66 - 70	35
71 - 75	40
76 - 80	45
81 - 90	50
91 - 100	60

Balioespen handiena lortu duten erakundeei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

10. artikulua. Organo eskuduna eta ebazpena

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Balioespen Batzorde batek aztertuko ditu eskabideak. Batzorde horrek kontuan hartuko du otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, bere 3.7 artikuluan ezarritakoa. Hortaz, honako kide hauek izango ditu:

- Batzordeburua: Kultura zuzendaria edo berak eskuordetutako pertsona.
- Batzordekideak: Kultura Ekintza Zerbitzuaren burua, edo berak eskuordetutako pertsona, eta Kultura Zuzendaritzako bi teknikari.
- Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko burua, edo berak eskuordetutako pertsona, hitzarekin baina botorik gabe.

3. Balioespen batzordeak, dirulaguntza emateko edo ukatzeko proposamenekin batera, txosten bat egingo du, non jasoko baita onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien zerrenda ordenatua.

4. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, balioespen batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

6. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzailei eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Baldintza guztiak beteta, esleitutako kreditua agortu delako dirulaguntzari lortzen ez duten eskabideak ere jasoko dira. Eskaera horiekin itxaron-zerrenda bat egingo da, uko egiterik izanez gero erabiliko dena, balioespen irizpideak aplikatzearen ondoriozko lehentasun hurrenkera begiratu.

7. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei banan-banan, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan arautzen duenarekin.

11. artikulua. Eskaerak birformulatzea

1. Dirulaguntzaren xedea eskatzaileak egin beharreko jarduerak finantzatzea denean, ebazpen proposameneko dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskabidean ageri den zenbatekoa baino txikiagoa bada, pertsona onuradunari bere eskabidea birformulatzeke eskatu ahal izango zaio, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzari egokitzeko.

2. Eskabideak birformulatzean, betiere, dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, bai eta eskaerak balioesteko ezarritako irizpideak ere.

12. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

a) Laguntza emandako xede zehatzerako erabili beharko dute.

- b) Arabako Foru Aldundiak egindako egiaztatze jarduketak onartu beharko dituzte, bai eta finantza kontrolak edota kontu hartzaileak egin beharrekoak ere eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan jasotakoak.
- c) Aurkeztutako dirulaguntza eskaera balioesteko egoki iritzitako argibide eta agiri guztiak eman beharko dizkiote Arabako Foru Aldundiari.
- d) Deialdi honetan ezarritako betebeharrak beteko dituzte, bai eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kontura jasotako laguntza eta dirulaguntzak direla-eta ezarritako gainerako betebeharrak eta eginkizunak ere.
- e) Egiaztatuko dute betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela eta dirulaguntza emateko eta hartaz gozatzeko oinarri izan den jardueraren egin dutela.
- f) Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.
- g) Dirulaguntzen onuradunek argi eta garbi adierazi beharko dute Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren laguntza dutela, diruz lagundutako programa edo jardueraren dela eta argitaratzen dituzten programen aleetan, iragarki karteletan, argazkietan eta gainerako material grafikoan, idatzi zein entzunezkoetan. Horretarako, <https://web.araba.eus/eu/foru-aldundia/erakundea/marka>. Eta, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte.
- h) Dirulaguntza jasotzen duen entitateek bermatu behar dute hizkuntzaren erabilera ez sexista jaulkitako agiri guztietan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez. Lege horren babesean, argitaratzen diren irudietan pertsonak ez dira giza duintasun handiagoz edo txikiagoz agertuko euren sexuaren arabera, ez dira sexu objektu soil gisa agertuko eta ez da erabiliko estereotipo sexistarik eta genero rol eta identitateen dibertsifikazio sexuala bultzatuko da. Halaber, justifikazioan emandako informazioan sexuaren aldagaia sistematikoki sartzeko konpromisoa hartuko dute, emakumeen eta gizonen partaidetzan dauden desberdintasunak ikusgai egitea ahalbideratzen duten datu desagregatuak eskaintzeko moduan.

13. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sail honetatik helburu bererako lortutako beste batzuekin; eta bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, beste edozein administratibotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik, estatutik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik edo Arabako Foru Aldundiko beste sail batzuetatik jasotakoekin, betiere diruz guztizko aurrekontu lagungarria gainditzen ez bada. Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntzari gehiegizko zenbatekoa kenduko zaio.

Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio dirulaguntza ematen duen organoari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duen edo eskuratzeko eskaerarik egin duen, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik. Jakinarazpen horrekin batera, eman edo ukatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen dirulaguntzekin edo laguntzekin batera, ez du inola ere gaindituko sortutako gastuen kostua.

14. artikulua. Esleitutako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea

1. Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da. Lehenengo zatia, dirulaguntzaren ehuneko 80, dirulaguntza emateko datatik aurrera ordainduko da justifikatu beharreko aurrerakin gisa, eta bigarren zatia, gainerako ehuneko 20a, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren.

Oro har, diruz lagundutako programa amaitu ondoren, justifikazio agiriak aurkeztu eta dirulaguntza kobratzeko eskatu ahal izango da, justifikazioa aurkezteko gehieneko epea amaitu arte itxaron behar izan gabe. Hori izango da modu operatibo egokia dirulaguntza kobratzeko epeak arintzeko.

2. Aurrekoa gorabehera, gehieneko bi epe ezartzen dira egiaztagiriak aurkezteko:

- a. 2023ko urriaren 1a baino lehen amaitzen diren kultura programa guztien frogagiriak 2023ko urriaren 20rako aurkeztu beharko dira, beranduenez.
- b. 2023ko azken hiruhilekoan amaitzen diren kultura programen frogagiriak 2023ko abenduaren 15erako aurkeztu beharko dira, beranduenez. Salbuespen gisa, urteko azken hamabostaldian jarduerak egiten dituzten erakundeek 2024ko urtarrilaren 2ra arte aurkeztu ahal izango dituzte froga-agiriak, aldeztatik Kultura Ekintza Zerbitzuari jakinarazita.

Eskaeran puntuatutako balioespen irizpideak partez edo osorik ez betetzeak berekin ekar lezake lortutako puntuazioa eta dirulaguntzaren zenbatekoa aldatu behar izatea, eta, ondorioz, dirulaguntza minoratu behar izatea.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza. 2024ko martxoaren 1erako aurkeztu beharko dira, beranduenez, dirulaguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

3. Dirulaguntzen justifikazioa bat etorriko da Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoarekin, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatua.

Pertsona edo erakunde onuradunak egindako justifikazioa justifikazio kontu erraztutzat hartuko da, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onesten duenaren, 75. artikuluan (aurrerantzean, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra) eta 50/2019 Foru Dekretuaren 11.3 artikuluan jasoa.

Justifikazio kontu erraztuak honako informazio hau jaso behar du:

a) Ekintzaren memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena. Ezarritako helburuen lorpen maila adierazi behar da bereziki. Gainera, sistematikoki sartu beharko da sexuaren aldagaia txostenean emandako informazioan. Horrela, datuak berezita emango dira, emakume eta gizonen partaidetzan dauden aldeak ikusi ahal izateko eta, ahal den neurrian, datu horien analisisa eta interpretazioa ere jaso beharko dira.

b) Programaren gastu eta inbertsio guztien zerrenda sailkatu bat, honako hauek adierazten dituena: hartzekoduna, gastu agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkitze-data eta, hala badagokio, ordainketaren data. Ahal dela, Excel formatuan edo baliokidean erantsiko da. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira.

Jatorrizko fakturak edo dokumentu baliokideak aurkeztu beharko dira soilik baldin eta banaka edo batera, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 2.000 eurotik gorakoak badira (BEZik gabe). Era berean, gastu horien ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

5.2.b) artikuluan jasotzen den bezala, ez da beharrezkoa izango zeharkako gastuak edo gastu orokorrak justifikatzea.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4. Dirulaguntzak justifikatzean faktura elektronikoa erabili ahal izango dira gastuak justifikatzeko, bat etorritik Baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin.

Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da faktura elektronikoen formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, konfiantzazko zerbitzu elektronikoa eskaintzen dituzten erakunde kualifikatuen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>).

5. Laguntzak justifikatzeko dokumentazioa modu telematikoa aurkeztuz gero Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dagoen izapide espezifikoa bidez, jatorrizko egiaztagirien gordailuan sartu direlako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da. Aitorpen horretan adierazi beharko da emandako laguntzaren justifikazio gisa aurkeztu den dokumentazioa (ordainketen fakturak eta egiaztagiriak) bat datorrela erakundearen legezko helbidean zaintzapean daukan jatorrizko dokumentazioarekin. Adierazpen hori erakundearen legezko arduradunak sinatu beharko du.

6. Instrukzio organoak, laginketa tekniken bidez, egokitzat jotzen dituen justifikazio agiriak egiaztatuko ditu, eta, horretarako, hautatzen dituen gastuen eta ordainketen jatorrizko egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

7. Adierazitako epealdian aipatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, ordainketa kredituak baliogabetuko dira, eta “justifikatu beharreko aurrerakin” gisa jasotako diru kopuruak itzultzeko espedientea abiaraziko da.

15. artikulua. Itzultzeko arrazoiak eta araubide juridikoa.

Esleitutako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan eta Dirulaguntzen Araudi Orokorrean ezarritako kasuetan.

Onetsitako dirulaguntza dela eta jasotako diru zenbatekoak itzuli behar izatekotan, zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren II. tituluko I. kapituluaren arabera kobratuko dira.

16. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: www.araba.eus eta www.kulturaraba.eus/eu/gaurkotasuna

17. artikulua. Azken klausula

Erabaki honetan ezarritako prozedura honako hauek ezarritakoari lotzen zaie: Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua, Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dituena eta Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuena; Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak dirulaguntzen arloan arautzen dituen xedapenak, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, bai eta araudi aplikagarriak xedatzen duen guztiari ere.